

BIZIKLETAK MAILEGATZEKO ETA BIZIKLETA PRIBATUAK APARKATZEKO ZERBITZUEK SORTUTAKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA. 2019. URTEA

I.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Udal honek, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen 9/2005 Foru Arauarekin bat etorriz, bizikletak mailegatzeko eta bizikleta pribatuak aparkatzeko zerbitzuek sortutako tasa ezartzen eta eskatzen du Ordenantza honen baldintzetan.

2. artikulua.- Ordenantza udalerrri guztian aplikatzen da.

II.- ZERGAPEKO EGITATEA

3. artikulua.- Zergapeko egitateak da bizikletak mailegatzeko eta bizikleta pribatuak aparkatzeko zerbitzuak ematea.

III.- SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua.- Subjektu Pasiboak dira, zergadun-kontzeptuan, Zergei buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 34. artikulua aipatutako pertsona fisiko nahiz juridikoak eta entitateak, bizikletak mailegatzeko eta bizikleta pribatuak aparkatzeko zerbitzuak ematea eskatzen dituztenak.

Zerbitzuak adingabeko batek eskatuz gero, haien legezko ordezkariak izango dira ordezeko subjektu pasiboak.

IV.- ZERGA-KUOTA

5. artikulua.- Zerga-kuota txikitu ezin den kopuru finko bat izango da ondoren aipatzen den xehetasunaren arabera:

- Bizikletak alokatzeko urteko ordainketa: 10 euro/urteko
- Bizikleta partikularrak aparkatzeko urteko ordainketa: 20 euro/urteko
- Noizbehinkako ordainketa (bizikleta mailegatzeko zerbitzua egun osoz erabiltzen uzten du): 2 euro.

V.- SORTZAPENA

6. artikulua- Tasa sortzen da eta hura ordaintzeko betebeharra hasi, xede horretarako prestatutako puntuetan mailegatzeko bizikletak alokatzeko noizbehinkako edo urteko ordainketa edo bizikleta partikularra aparkatzeko urteko ordainketa kudeatzen den unean.

VI.- ORDAINKETA

7. artikulua.- Tasa dagokion ordainketa kudeatzean ordainduko da.

VII.- AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau 2014ko urriaren 28an onartu zen, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu hurrengo egunetik aurrera indarrean sartuko da eta indarrean jarraituko du harik eta hura aldatzea erabakitzen den arte.